

E I B A R

Bandako ote?

Lagun asko etorri jaku galdezka, "Albistariak" bandako ote? Noiztik nora?

Egia esan, lehenengoan, adarra joten-edo etozela uste izan genduan. Zer dala-ta "Albistariak" musika bandako? Nork asmatu ote dau horrelakorik?

Are* gehiago harritu ginen, ez dala hori inork asmatutakoa, guk geuk esandakoa baino, erantzun euskuenean. Geuk esanda? Noiz, non?

Berandutxo konturatu ginen. Luzio Bengoa zanak 2.000 pezeta laga eutsezala bandakoei eta, era honetan idatzi genduan: "Bandako lagunok txikito batzuk edan gengizan". Oker haundia, baina ez gurea, zuzentzailearena baino. Gipuzkeraz jarri genduan nonbait, eta, bizkaieratzean, pertsona ere aldatu egin zan. Gure "zitzaten" erak "gengizan" hartu eban ordezko.

Beharbada, "Albistariak" garela izenez eta, tronpeta jotzailatzat edo hartu ginduzan zuzentzaileak.

Nahaste-borraste

"Euskera Lagunak" izeneko elkargo* berriak mila eta bostehun bazkide bereganatzeko asmoa ei dau. Kuota txikiena, hilabeteko 25 pezetakoa izango da. Hortik gora, bakoitzak gura eta ahal dauana.

"Alfa" k irudi bat eskaini deutsa bere lehen gizonari, Toribio Etxebarria zanari hain zuzen. Gazteok ez dogu Toribio ezagutzen; eta ezagugarria da, ezagugarririk bada. Jardungo dogu Toribioz noizbait.

Serafin Basauri langile isila maisu dogularik, astelehenero izaten ditugu ikasaldi baliotsuak. "Batasunaren Kutxa", aditz* batua eta deklinabidea dira gehienbat erabiltzen ditugun gaiak. Zenbat eta gehiago ikasi, hainbat eta ikasberago.

Zezenzaleen Elkargo Eibartarrak, zezenei buruzko marrazki* sariketa bat antolatu dau. Lan guztien erakusketa Gabonetan izango ei da. Lehenengo saria zortzi mila pezetakoa. Nork dau adarrik etxean? Zortzi mila pesetok berehala irabaziko leukez.

Gregorio Mujikaren "Eibar, Monografía Histórica" liburua ahituta* ei dago. Liburutegietan oso gaitza da aurkitzen. Inor interesaturik bada, jakin daiala Udaletxean* salgai dagoela, 100 pezeta aleko.

Inprentan da, laster irteteko eran, Juan San Martín buru dauala, Eibarko talde batek moldatutako Eibar huriaren beste monografía bat. Zelaiarenarekin, horra hor hiru monografía. Ba dogu, bai, geure aztarrenen berri non bila.

ALBISTARIAK